

## **BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

6. batzarraren AKTA.  
2018ko ekainaren 14a – 17:00 h

### **BERTARATUAK**

Juan María Aburto (Bilboko Alkatea)  
Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia, presidenteordea)  
Marta Ajuria (Ekonomia eta Ogasun zinegotzia)  
Xabier Otxandiano (Garapen ekonomikoa, Merkataritza eta Enplegu zinegotzia)  
Ainara Aretxabaleta (EAJ-PNV udal taldea)  
Alba Fatuarte (EH-Bildu udal taldea)  
Inés Ibáñez de Maeztu (PSE-PSOE udal taldea)  
Jesús Sanz Salamanca (PP udal taldea)  
Amaia Arenal (Udalberri udal taldea)  
Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendaria)  
Mari Jose Arrieta (Euskara zuzendariordea)  
Libe Agirre (Kazetaria. Bizkaia irratia)  
Ana de Castro (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia)  
Jokin Gorozika (Labayru Fundazioa)  
Aitor Elizegi (Bilbao Dendak)  
Jon Maguregi (Bilboko euskaltegiak)  
Xabier Monasterio (Kultura-eragilea. Zenbat gara elkarte)  
Jon Simón Gartzia (Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila)  
Irene Diez Martin (Bilboko udaleko komunikazioa)

### **EZIN ETORRIA ALDEZ AURRETIK ADIERAZI DUTE**

Nekane Alonso (Kultura zinegotzia)  
Alexander Arauzo (Goazen Bilbao udal taldea)  
Genar Andrinua (Athletic Club)  
Andrés Urrutia (Euskaltzaindia)  
Izaskun Llona (Bilboko udaleko prentsa bulegoa)

### **IDAZKARITZA TEKNIKOA**

Idoia Postigo (Bilbao Metropoli-30)  
Lander Solozabal (Labayru Fundazioa)

## **GAI-ZERRENDA**

Alkateak ongietorria eman die bertaratuei eta haien ahalegina eskertu du.

### **1.- AURREKO BILERAREN (2017-11-23) AKTA ONARTU.**

Aurreko bileraren **akta onartu da.**

### **2.- BILBOKO UDAL ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (2018-2022).**

Koldo Narbaizak adierazi du plan berri hau onartzeko aurre-lanetan diharduela Euskara Zuzendariordeak. Maiatzaren 16an Gobernu Batzordean aurkeztu zuen nola nahi den bideratu prozesua. Alderdi politikoei eta sindikatuei ere aurkeztu zaie. Udaleko arduradun eta langileekin berriz, dinamika partehartzailea egin da. Gaineratu du Udalaren helburua dela dokumentua adostu eta plan on bat egitea, beti ere jakinda nondik gatozen, non gauden eta nora goazen.

Ondoren, Mari Jose Arrietak [Power Point](#) bat erabili du orain arte egin diren lanak aurkezteko. Hauek izan dira azaldu diren ideia nagusiak:

- V. Plan hau ez da hutsetik sortu, eta oinarri batzuk ditu:
  - 1999tik hona egindako beste lau planak.
  - 2008an onartutako hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak (jendaurreko ekitaldietan eta kontratazioan).
  - Orain indarrean dugun Gobernu Planaren (2015-2019) 9. ardatza (kanpora eta barrura begirako ildo estrategikoak).
  
- 2017an, aurreko Planaren indarraldia amaitu zenean, ebaluazio bat egin zen, euskararen erabilera maila Udalean zein zen jakite aldera. Hauek dira daturik eta ondorioz esanguratsuenak:
  - Ezagutza:
    - Aurrerapenak egin dira langileen prestakuntzan eta trebakuntzan.
    - Langileen erdiek derrigorrezko hizkuntza eskakizuna dute ezarrita.
    - Dagokion derrigortasun dataren indizetik (zenbat lanpostuk izan behar duten hizkuntza eskakizunen bat) 13 puntu gorago dago Udala.
    - Langileen erdiek egiaztatuta dute lanpostuan dagokien hizkuntza eskakizuna.

- Erabilera:
    - Ez da asko aurreratu urteotan.
    - Zerbitzu hizkuntzari dagokionez, ondoen dauden parametroak dira: ingurune digitala (%80), errotulazioa eta ikus-entzunezkoak (%74,2). Okerren, berriz, idatzizko harremanak (%2,90).
    - Lan hizkuntzari dagokionez, ahoz zein idatzizko harremanetan, euskararen erabilera ez da %6tik igotzen.
  - Motibazioa: egindako barruko inkesta baten bidez, agerian geratu zen langile askorentzat euskararen normalizazioa gai garrantzitsua dela.
  - Giza Baliabideetako Zuzendaritzako eta Euskara Zuzendariordetzako kideen artean, lantaldean egindako AMIAren ondorioz detektatutako ahuluneak:
    - Bilboko Udalaren hizkuntza politika berrikusi.
    - Langileen interes eta motibazioan eragin.
    - Gaztelaniaz funtzionatzeko inertzia gainditu.
    - Erabilera Plana indartu eta baliabideez hornitu.
- Aurrera begira, aldaketa baten premia nabaritzen da. Horretarako, lidergoaren beharra antzematen da eta Udal barruko eragile guztien inplikazioa beharrezkoa izango da. Hori lortzeko, prozesu parte hartzaile bat dago martxan, eta, saio batzuen bidez, udal ordezkari, sailetakako arduradun eta langileei aurkeztu zaie, planaren inguruan hausnartu dezaten eta ideiak bota ditzaten.

### **3.- BILBOKO GAZTEEN EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO IKERKETA (EUSKO IKASKUNTZA).**

Eusko Ikaskuntzak gazteen erabilerari buruzko gakoak aztertu zituen 2017an Bilboko Udalaren laguntzarekin gauzatu zuen ikerketan. Lanari buruzko txostena 2018an burutu da. Bere izenburua: [“Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez?”](#).

Rosa Miren Pagolak eta Idoia Carramiñanak ikerketaren emaitzak aurkeztu dituzte. Hau da aurkeztutakoaren laburpena:

- **Metodologia:** ikerketa honen helburua izan da, besteak beste, Bilboko gazteen euskararekiko esperientziak ezagutzea eta euskararen erabilera sustatzeko gakoak identifikatzea, erabilera handitzeko. Unibertsitateko eta 7 ikastetxetako 24 gazterekin egin da lana, bi talde saiotan.
  - **Emaitzak:**
-

- “Zer da euskara niretzako?” Galderari erantzutekoan, partaideek irudi eta sentimendu ugari adierazi dituzte: kultura, identitatea, eskola, jaia...
  - “Nolakoak gara Bilboko gazteak eta zerekin identifikatzen gara?": jaiak, sare sozialak, itxura, jarrera kritikoa...
  - Euskararen erabilera: gazte gehienak euskaratik urrun, ez dago modan, eskolako hizkuntza da. Kode alternantzia eta elkarrizketa elebidunak nagusitzen dira.
  - Zailtasunak gehiago erabiltzeko: eremu erdalduna, beharrik ez, erakundeen konpromiso falta, erraztasunik eta jarriotasunik ez, aurreiritziak, erreferente faltak...
  - Gakoak: eskola, lotura afektiboa, kultura eta harremanak, etxea eta arnaguneak.
  - Euskara gehiago erabiltzeko proposamenak: euskara ludikotasunarekin lotu, erakargarriago egin, prestigiatu, baloratu, erreferenteak proposatu...
- **Proposamenak:** ikastetxeetako euskararen irakaskuntza eta presentzia errebisatu, aisialdiko eskaintza zabaldu, gazte euskaltzaleek elkar ezagutzeko ekimenak antolatu, euskararekiko atxikimendu berezia duten gazteekin ekitaldiak antolatu...

#### 4.- EUSKARALDIA 2018.

Sarrera gisa, Koldo Narbaizak adierazi du Euskaraldia izeneko dinamika ezaguna den arren Aholku Batzordeko kideentzat, egokia dela bilera honetan azaltzea batetik, zer egin duen Udalak ekimen honi dagokionez, eta bestetik zertan den ekimena Bilbon momentu honetan.

Lehenengo puntuari buruz zinegotziak azaldu du denbora daramala Udalak Jalgi fundazioarekin [hitzarmena](#) sinatzeko lanetan. Euskaraldia Bilbon gauzatu dadin dirulaguntza emango dio Udalak Jalgi fundazioari antolaketaren ardura har dezan. Bestalde, Euskaraldiaren aurkezpena egin zen maiatzaren 29an Bilboko Pergolan alkatearen agerraldiarekin eta eragile guztien partehartzearekin.

Ondoren, Iker Martinez de Lagosek Euskaraldiaren nondik norakoak azaldu ditu, bi planotan: zer den Euskaraldia eta [zer egingo den Bilbon](#).

**Zer da Euskaraldia?** Ariketa sozial, masiboa, borondatezkoa eta bateratua izango da, azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte egingo dena, eta helburu duena, besteak beste, euskararen erabilera handitzea, inertziak eta ohiturak aldatuz, egunerokoan eraginez eta

sareak indartuz. Horretarako, bi aukera egongo dira parte hartzeko: *Ahobizi* izan (euskaraz ulertzen duen jende guztiari euskaraz, nahiz eta besteak gaztelaniaz erantzun) edo *Belarriprest* izan (euskaldunei adierazi haiekin euskaraz egin dezaketela, nahiz eta gaztelaniaz erantzun).

**Zer egin(go) da Bilbon?** Orain aurkezpenak egiten ari badira ere, hilabeteak daramatzate elkarlanean euskalgintzako eragileak eta Udala. Antolakuntzari dagokionez, batetik auzoka ari dira lanean eta, bestetik, sektoreka (euskaltegiak, ikastetxeak, enpresak eta konpartsak). Aldi berean, hiru talde daude, dena koordinatzen: talde eragilea, komunikazio taldea eta finantzazio taldea. 6 urrats ditu prozesuak: lantaldeak antolatu, aurkezpenak, sarea, izena eman, 11 egun euskaraz eta balorazioa.

## **5.- EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEKO EKIMENAK (*HIRIAN ERE...*, MATRIKULAZIO-KANPAINA).**

Koldo Narbaizak esan du urtero egiten dutela euskaltegiekin batera kanpaina bat jendea animatu dadin euskaltegietan izena ematera. Irailean zabaltzen da matrikula egiteko epea eta horregatik kanpaina hori irailean egiten da. Aurten ere kanpainaren diseinua prestatzen ari dira.

Bestalde, Mari Jose Arrietak azaldu du [\*Hirian ere...\*](#) ekimenaren barruan, bi data esanguratsutan (Santomasetan eta Bilbao Bilbao txirrindulari martxan) ekimenaren milaka liburuxka banatu zitzaiera herritarrei, Bilbotarrak izan zein kanpotik etorritakoak izan, adierazteko Bilbon euskara erabili dezaketela, euskara ere Bilboko hizkuntza delako eta euskaldun asko daudelako. Lehen hitza euskaraz egin dezaten animatu nahi dira herritarrak. Hurrengoa noiz egin aztertzen dabilta.

## **6.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.**

EH Bilbu taldeko Alba Fatuartek honako komentarioak egin ditu:

1.- Udalaren Euskara Planaren gaiarekin lotuta,

- Ados dago aurkeztutako diagnostikoarekin. Argi ikusten du fokua jarri behar dela erabileran.
- Faltan bota du itzulpengintzari buruzko datuak jaso ez izana diagnostikoan. Sentsazioa da gehiegi itzultzen dela. Hori dela eta, Itzulpen zerbitzua, askotan, ez da heltzen epe barruan erantzuteko.
- Egokia iruditzen zaie Udalak bere neurrirako plana lantzea eta ez Jaurlaritzakoari orpoz orpo lotutakoa.

2. Euskaraldiari dagokionez,

- Dinamika hau Udalaren Euskara Planean sartzea aukera bat izan daiteke. Azaroan abiatuko da eta plana ere hor gutxi gorabehera onartuko da.

Horrez gain, partaideek adostu dute *Hirian ere...* ekimenaren lema egokitzea. Hurrengo ekitaldietarako “Lehen hitza euskaraz” izango da.

Amaitzeko, alkateak eskertu die parte hartu dutenei etorri izana.

Bilbon, 2018ko ekainaren 25ean

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA**  
**M<sup>a</sup> José Arrieta**